



Besoitabeitia (-a) *etxebizitza*

Aldaerak: Besoitabeko

Ahozkoa: Besóitte béko / Besóittebéitti



43° 11' 11"

2° 34' 23"

Berriz Iruditan / J.A. Ramos

"... la casería rústica titulada Besoitabeitia... situada en la barriada de San Lorenzo jurisdicción de la Anteiglesia de Berriz, que comprende con su zaguan ochenta y tres estados cuadrados de planta olar, y la que se compone de piso bajo y alto a manera de entresuelo, y es de dos habitaciones..."
DJE 1/194 or. (1864)

Besoita aldeko baserria dugu honako hau, *Done Laurendi* (**Ikus Done Laurendi**) ermitaren parean kokaturik dagoena. Bizkaiko su-errodan agertzen da lehenbizikoz, hots, *Besoyta Ueytia* (1704), eta izenaren bigarren osagaiak erakusten duenez, *Besoita* izeneko guncaren azpiko aldean kokaturik dago.

Dokumentazioan aldaera gutxi izan ditu, formetan v eta b tartekatzen direlarik: *Besoita Veitia* (1803, BAH, A71/9. or.), *Besoitabeitia* (1857, BUA, Viv) eta *Besoita Veitia* (1905, BUA, 40. or.). 1859ko izendegian *Besóitas* agertzen da, eta inguruko baserri guztiak jasotzen dira erregistro horren baitan. Berriztarren artean, *Besóitte béko* edo *Besóittebéitti* dira erabilitako ahozko formak.

XX. mendearen erdialdean eraberritutako baserri-etxea da. Berrizko baserri askoren tradizioari jarraituz, arkudun atartea dauka sarrera gisa, eta horren aldean, leiho bana, dena harritz egina. Gaineke guztia luzituta eta pintatuta dago. Lehenengo pisuaren erdialdean, balkoia dauka, bi leihorekin alde bakoitzean, eta izkinean, beste leiho bana, behekoekin lerrotatuta.

Ganbara aldean egurrezko egitura imitatu zuten, eta erdialdean, azpikoekin harmonia gordez, leihoak zabaldu zituzten, eta izkinean, berriz, bina txori-toki. Bi isurkiko teilatua dauka. Inskripzioak honela dio: "*CASA BESOITABEITIA / PAULINO GOROSTIZA / JUANA ARROTTAONANDIA / 10-8-1954*".

toponimia

Berrizen badira -ita amaiera duten leku izen asko eta Etxeita kasuan hasieran etxe egon daitekeela pentsa daitekeen arren beste batzuetan hasierako osagaia pertsona izen bat izan litekeela pentsa genezake. Hori balitz kasu honetan Beso edo antzeko zerbait izan genezake, baina datu gehiago beharko genuke zerbait ganoraz ondorioztatzeko. Kasu honetan beheko aldekoa dela esaten digu.